

EUSKARA, HIZKUNTZA ERGATIBOA OTE DA?(*)

Pello SALABURU

1. Hizkuntza ergatiboak

1.1. Azken aldiotan behin baino gehiagotan entzun ahal izan dugun galdera da hori. Eta galdera honek ez du, ez, erantzun erraza, beste hainbat eta hainbat galdera eta koropiloekin baitago erlazionatua. Goazen, hortaz, pixkanaka.

Hizkuntzalariak esan ohi dute, oro har, hizkuntza bat ergatibotzat hartzen dela hizkuntza horretako perpaus iragangaitzen subjektua eta perpaus iragankorren objektua kasu berean agertzen badira. Euskararen datuak ikusirik, badirudi euskara ergatiboa dela:

(1) *Peru* etorri da

(2) Mikelek *Peru* agurtu du

Ohart gaitzkeenez, hor ongi aski betetzen da hizkuntzen ergatibotasuna definitzeko erabiltzen den irizpidea, (1) adibideko perpaus iragangaitzaren subjektua eta (2) adibideko perpaus iragankorren objektua kasu berean baitaude, biak absolutuan. Hortaz, itxuraz bederen, euskara ergatiboa dela erantzun genezake.

1.2. Hala ere, berehala ikusiko dugunez, gauzak ez dira hain sinpleak. Hasteko, perpausen iragankortasuna eta perpausen iragangaiztasuna normalean nola definitzen diren ikusi behar dugu. Hori batetik. Bestetik, ergatibitatearen kontua ez da bakarrik *izen sintagmen morfologiara* mugatzen (eman ditugun bi adibideak izen sintagmaren morfologiaren mailakoak dira) eta *aditzaren morfologian* edo *sintaxian* ere zer gertatzen den aztertu behar da, suerta bailiteke hizkuntza batzuk ergatiboak izatea morfologia mailan baina ez, ordea, sintaxian. Edo alderantziz. Azkenik, hizkuntza bat ergatiboa dela baldin badiogu ere, horrek ez du esan nahi ergatibitate hori beti eta egitura guztietan betetzen denik, egitura zenbaitetan ergatibitatea hautsia gertatzen baita. Ikus ditzagun puntu hauek banan-bana.

(*) Ikerketa proiektu hau, Espainiako Hezkuntza Ministerioak finantziatu du, neurri batean (MEC, PS89-0188, DGICYT).

¹ Ohar hau J.A. Mujika adiskideari eskertu nahi diot.

2. Iragankortasuna eta iragangaiztasuna

2.1. Euskal gramatikan, oro har, agerian, nahiz isilbidez, honela definitu izan ditugu perpaus iragankorrak eta iragangaiztzak: perpaus iragankorrak dira laguntzaile modura **edun* edo **ezan* aditzak hartzen dituztenak eta perpaus iragangaiztzak, berriz, *izan* edo **edin* hartzen dituztenak. Irizpide hau erabiltzeak badu, hala ere, alde txar bat, hemen aipatu beharko litzatekeena, irizpide hori, azken batean, aski zirkularra baita: nola dakigu zein perpausetan erabil daitezkeen laguntzaile horiek? Bada, erantzungo dugu, **edun* eta **ezan* erabiliko dira perpaus iragankorretan eta beste bi laguntzaileak (gauzak erraztearren, euskalkietan laguntzaile gehiago ere baitago: **iron*, *entsi*, e.a.) perpaus iragangaiztetzan. Honela, esango dugu, perpaus hau iragankorra da **edun* hartzen duelako, eta **edun* laguntzailea erabili behar da, hain zuzen ere, perpaus iragankorretan. Eta hortik ezin atera.

2.2. Beste hizkuntzak aztertu izan direnean, ordea, euskarari buruz erabiltzen ditugun ez bezalako irizpideak hartu ohi dira kontuan iragankortasuna eta iragangaiztasuna definitzeko orduan. Irizpide hauek aditz bakoitzak bere inguruan har ditzakeen osagarrien (har ditzakeen izen sintagmen) kopuru eta izaeran oinarritzen dira. Aditzak, dakigunez, argumentu sare baten barnean eratzen dira. Horrela, aditz batzuek pazientearen eta ekintzaren eragilearen paper tematikoak bereganatu dituzten argumentuak behar izaten dituzte:

(3) zakurrak katua izutu du

Perpaus horretan *izutu* aditzak bi paper tematiko hartzen dituela esaten da: pazientearena (katuak bereganatu duena) eta agentearena (zakurrak eskuratzen duena). Paper tematiko hauek bi argumenturen gainean ezartzen dira: barneko argumentuak (aditz sintagmaren barnean ageri denak) hartzen du paper bat eta kanpoko argumentuak (subjetuak alegia) bestea. Argumentuak, ikusten den moduan, izen sintagma dira, esanahia duten izen sintagma hain zuzen ere (hizkuntzetan agertzen diren pleonastikoak ez baitira argumentutzat jotzen).

Baina aditz guztiek ez dituzte beti bi argumentu hartzen, jakina den bezala. Aditz batzuek argumentu bat bakarria hartzearekin aski dute: *joan*, *etorri*, e.a. Aditzen ezaugarriak definitzeko orduan, hortaz, ezinbestekoa da jakitea aditz bakoitzaren kasuan zein den aditz horri dagokion sare tematikoa edo argumentu sarea. Ezaugarri honen berri ematea hiztegiari dagokio eta horixe da hiztegiek egiten dutena, zeharbidez baizik ez bada ere.

Hain zuzen ere, hizkuntzalariak argumentuen kopuruan oinarritu izan dira aldi bakoitzean aditzak sailkatzeko orduan: hizkuntzetan zehar, esan izan da eta esaten da argumentu bat bakarria eskatzen duten aditzak iragangaiztzak direla. Bi argumentu eskatzen baldin badituzte, berriz, iragankorrak. Ikusten denez, irizpide honetan ez zaio kasurik egiten aditzak har ditzakeen aditz laguntzaile motei. Irizpide honekin ez gara definizio zirkularretan sartzen, aditz gehiengoak aski erraz sailkatzen ahal baitira argumentuen arabera, ondoan jar dakiezkien izen

sintagmei begiratuz. Gure lehenbiziko adibideetara itzuliz, orain, berehala ikusten dugu *etorri* bezalako aditzak iragangaitzak direla eta *agurtu* bezalakoak, ostera, iragankorrak. Adibide hauetan oinarrituz euskara ergatiboa dela esan daiteke, nolana ere definitzen ditugula aditzak (argumentuen irizpidez baliatuz nahiz aditz laguntzaileen motaz baliatuz, euskararekin egiten den bezala) ergatibitatea definitzeko orduan bi irizpideek bat egiten baitigute.

Hortaz, ondorio gisa, eta eman ditugun adibideetan bakarrik oinarriturik, besterik gabe esan liteke euskara hizkuntza ergatiboa dela.

3. Ergatibitatearen mailak

3.1. Batez ere deskripzio mailan ergatibotasuna ongi ikertua izan den kontua da hizkuntzalarien artean (Akmajian, Demers et al. 1979; Comrie 1978; Comrie 1981; Lehmann 1978; Plank 1979). Gaur egun, badakigu hizkuntza ergatiboak nonahi aurkitzen ahal direla, nahiz Europako mendebalean euskara bakarrik sar daitekeen zerrendan. Gero, hurbilenak Kaukaso aldean daude, ongi jakina denez. Badirudi Afrikan ez dela hizkuntza ergatiborik deskribatu. Baina hizkuntza ergatiboak beste kontinente guztietan aurkitzen ahal dira eta hainbat eta hainbat hizkuntza familia osoak ergatiboak dira: Ameriketako eta Australiar, esaterako, oso arruntak dira hizkuntza ergatiboak. Ikus ditzagun hizkuntza hauen zenbait ezau-garri.

Comrie-k (Comrie 1978) egiten duen moduan dei ditzagun komentzionalki, «*a*» eta «*p*» aditz iragankor baten argumentuak (zentzu preteorikoan, letra horiek *agente* eta *paziente* hitzekin loturik leudeke), eta «*s*», berriz, aditz iragangaitzen argumentu bakarra (*subjeto* hitzarekin lotua, jakina). Hiru argumentu horien distribuzioa nola gerta daitekeen ikusi behar dugu orain, morfologia mailan, esaterako, modu askotara ager baitakizkiguke. Bakoitza bere aldetik, inolako markarik gabe (ingeleza paradigmaticoa litzateke, izenen kasuan, baina ez izenordainen kasuan):

(4) John came yesterday

(5) John saw Mary

Edo markaren batekin:

(6) Juan vino ayer

(7) Juan vió a María

Azter ditzagun adibide horiek: ingelesaren kasuan hiru argumentuak (*a*, *p* eta *s*, alegia) inolako marka morfologikorik gabe ageri zaizkigu (*John, John, Mary*). Gaztelaniaren kasuan, ostera, bi argumentu (*a* eta *s*) markarik gabe ditugu (*Juan, Juan*) eta beste argumentuak (*p*), preposizio bat hartu behar du nahitaez (*a María*). Beraz, goiko adibide horiek honela aurkez ditzakegu, morfologiaren aldetik egin daitekeen distribuzioaren arabera:

(8) ingeleza (a, p, s)

(9) gaztelera (a, s) (p)

Horiek ez dira ditugun aukera bakarrak, denetara bost konbinazio posible agertzen ahal baitira:

- (10) bat: (a, p, s)
 bi: (a, s) (p)
 hiru: (a) (p, s)
 lau: (a) (p) (s)
 bost: (a, p) (s)

Bigarrena, esaterako, nominatibo-akusatibo motako hizkuntzei dagokie: latinez, adibidez, gaztelerez bezala, hiru argumentu horien artean iragankorren objektuak bakarrik hartzen du marka morfologiko berezi bat. Lehenbiziko eta laugarren sailen artean dagoen desberdintasuna da lehenbiziko kasuan izen sintagmek ez dutela inolako marka morfologikorik hartzen eta laugarrenekoek, berriz, bakoitzak bere marka berezia hartzen duela. Azken sail honetako hizkuntzak ez dirudi maizegi aurkitzen direnik, nahiz batzuetan, halako berezitasunak erakusten dizkiguten sintagma solteak aurkitzen ahal diren: Australian mintzo den dyirbal-era hizkuntzan, esate baterako, *nor* galdetzaileak hiru itxura desberdin hartzen ditu, argumentu moten arabera (*a*, *p* edo *s* den). N. Gineako motueraz ere hainbat eraiketa aurki daitezke horrelakoak. Esan dezagun, azkenik, bosgarren saileko hizkuntzarik ez dela ezagutzen.

Maizenak bigarren eta hirugarren sailekoak dira: nominatibo-akusatiboak eta ergatibo-absolutu sistemakoak (oro har ergatibo deitzen dira azken hauek). Euskara dugu berriz ere lekuko sail honetan:

- (11) Jon etorri da
 (12) Mirenek Jon ikusi du

Ikusten denez, (*s* eta *p*) daude sailkatuak alde batean eta (*a*) bestean, lan honen hasieran azpimarratu dugun moduan. Nolanahi ere, hurrengo adibideetan ikusiko dugun moduan, ergatibitatea ez da, orain arteko adibideetan bezala, *izen sintagmaren morfologiara* bakarrik mugatzen eta *aditzaren morfologian* (aditzaren komunztaduran) eta *sintaxian* ere agertzen ahal da.

3.2 Parametro hauen guztien arabera hizkuntza batzuk ergatiboak dira *izen sintagmaren* morfologian. Euskara ez ezik Kaukasoko avarr-era hizkuntza ere ergatibotzat hartzen da maila honetan, ondoko adibideotan ikus daitekeenez:

- (13) Vas vekerula (mutila lasterka ari da)
 (14) Jas jekerula (neska lasterka ari da)
 (15) Vasas: jas jec:ula (mutilak neska laudatzen du)

Aditz sintagmaren morfologia mailan ere hizkuntzak ergatiboak nahiz nominatibo-akusatiboak izan daitezke. Horretako, komunztadurak nola gertatzen diren ikusi behar dugu: aditzean ageri diren markek «*a*» eta «*s*» elkarrekin multzoka-

tzen badituzte eta «p» bere utzi, orduan hizkuntza nominatibo-akusatiboa da. Swahilierarekin, esate baterako, hori gertatzen da:

- | | |
|---------------------------|---------------------------|
| (16) Hamisi alifika | (Hamisi etorri zen) |
| (17) Hamisi alimwona Juma | (Hamisik Juma ikusi zuen) |

Adizkian azpimarratu ditugu argumentuei dagozkien markak: «a» dagokion bi kasuetan *Hamisi-ri* (a eta s) eta «mw», berriz, *Juma-ri* (p). Gaztelerarekin ere horrelako zerbait dugu, nahiz eta «p»-k ez duen marka berezirik hartzen, ez baita objektuarekin komunztadurarik egiten:

- (18) Juan llegó
(19) Juan vió a María

Guatemalan mintzo den kitxera, alabaina, ergatiboa da maila honetan (azpimarraturik ematen ditut euskaraz dituen ordainak, aditz marketan, pare-parekoak baititu):

- | | |
|-------------------|--------------------|
| (20) koxkam-ik | (hiltzen ari gara) |
| (21) katkam-ik | (hiltzen ari zara) |
| (22) kat-kacucu-x | (nahi zaitugu) |
| (23) kox-acucu-x | (nahi gaituzu) |

Gauza berbera gertatzen da Mexikoko hegoaldeko tzotzil-eraz ere, ongi aski ikertua izan den moduan (Aissen 1987).

Euskararen kasuan ere gauzak berdintsu ikusten ditugu:

- (24) Nik Miren agurtu dut
(25) Jonek ni agurtu nau
(26) ni etxera joan naiz

Ikusten den moduan, «s» eta «p» elkarrekin doaz (n) aditzean eta «a» berriz, bere aldetik (t).

Hizkuntza batzuekin gertatzen ahal da, hala ere, izen sintagmaren morfologian ergatibo-absolutua izatea eta aditzaren morfologia mailan, ordea, nominatibo-akusatiboa (alderantzizkoa, berriz, ez bide da gertatzen). Horixe da, hain zuzen ere, Australiako hizkuntza den walbiri-eraz suertatzen dena (Levin 1983). Baina normalagoa da aditzaren komunztadurak eta izen sintagmaren morfologiak eredu bera segitzea. Hori aurkitzen dugu, esaterako, Kaukasoko hizkuntza den khinalug-eran.

Hizkuntzalariek pentsatzen zuten ergatibitatearen arazoa batez ere morfologiara mugatzen zela eta syntaxian ez zela halakorik gertatzen. Baina Australiako dyirbal-era deskribatu zenean (Levin 1983) gauzak dexente aldatu ziren. Ikus dezagun ondoko adibide hau:

- (27) ertzainak lapurra harrapatu eta kartzelan sartu zen

Adibide honetan bi aditz ditugu (bat iragankorra eta bestea iragangaitza). Semantika eta pragmatika aldetik badirudi perpaus honen interpretazio naturale-na dela pentsatzea kartzelan sartu dena lapurra dela eta ez ertzaina. Hala ere, edozein euskaldunek dakienez horrelako perpausok interpretazio bat bakarra dute euskaraz: ertzainak lapurra harrapatu duela eta ertzaina (eta ez lapurra) kartzelan sartu dela. Baina zer gertatu da hemen? Hain zuzen ere, isilean daukagun argumentuaren («s») erreferentziatasuna gauzaturik dagoen «ertzainak» izen sintagmaren («a») erreferentziarekin bat datorrela. Baina kontura gaitezen orain bi argumentu horiek (s eta a alegia) elkarrekin baldin badoaz, euskararen ergatibitate-a desagertu egin dela sintaxi mailan, nahiz eta salbuespenak ere aurki daitezkeen:

(28) Peru etxera etorri zen eta Mirenek agurtu zuen

(29) Miren agurtu genuen eta etxean sartu zen

Aipatzen ari garen dyirbal-era hizkuntza honetan, ordea, gauzak bestela suertatzen dira eta (29) bezalako perpaus batean hiztunak ulertzen duena da lapurra sartu dela kartzelan, «gizonak andrea jo zuen eta hona etorri zen» bezalako perpausuan euskaldunok «gizona» etorri dela ulertzen dugun tokian dyirbalera mintzo denak «andrea» etorri dela ulertzen duen modu berean. Hortaz, hizkuntza hau esaten da sintaxi mailan ere ergatiboa dela (isilean dagoen «s» argumentuaren erreferentzia beste perpausoko «p» baita). Eta interpretazio hau beti sistematikoa da. Euskararekin horrelakorik gertatzen ez denez, hizkuntzalariek esan izan dute euskara nominatibo-akusatiboa dela sintaxi mailan (Oyarçabal 1990; Rotaetxe 1978; Rotaetxe 1980).

4. Ergatibitate hautsia

Hizkuntzak ergatibotzat hartzen baditugu ere, goraxeago esan dugunez, ergatibitatea hautsia suertatzen da hainbat kasutan. Esate baterako, georgiera hizkuntza ergatiboa den arren, izen sintagmaren morfologia nominatibo-akusatiboa da aditzaren tempusa oraina denean, ergatibo kasua desagertuz delarik. Iraganean, ordea, ergatibitatea berriz ere agerian geratzen da.

Mexikoko hizkuntza batean ere (txol-era) ergatibitatea hautsia geratzen da orainean baina berriz ere berreskuratzen da iraganean. Dyirbalera ere izenordainek nominatibo-akusatiboaren sistema segitzen dute, nahiz eta hizkuntza hori argi eta garbi ergatiboa den (sintaxi mailan, zer esanik ez, ergatibo bezala jokatu-ko du, izenordainen morfologiak nominatibo-akusatibo sistema segitzen badute ere).

Baina ez dugu Mexiko edo Australiara joan beharrik ergatibotasuna nola hausten den ikusteko. Euskaraz ere baditugu halako adibideak. Esan dugun moduan, euskara ergatiboa da aditzaren komunztadura marketan, marka horietan ere alde batetik baitoa aditz iragankorren argumentu subjektua («ikusi dut») eta bestetik, berriz, elkarrekin, aditz iragankorren argumentu objektua eta iragangai-

tzen argumentu bakarra («joan naiz»), «ikusi nau»). Baina euskaraz ere, tempusa aldatzen dugunean eta iragana aukeratu, ergatibitatea hautsia geratzen zaigu:

- (30) etxera joan nintzen
- (31) Jonek ikusi ninduen
- (32) Jon ikusi nuen

Aditz markek, ikusten denez, ez digute inolako ergatibotasunik erakusten, hiru argumentuek marka berbera hartzen baitute oraingoan. Hori ez da gertatzen tempusa aldatzen dugunean bakarrik: absolutu kasuan doan aditz iragankorren argumentua hirugarren pertsonari dagokionean ere ergatibitatea hautsia suertatzen da. Hau, nonbait, ez da batera arraroa gertatzea hizkuntzetan (Comrie 1978). Beste pertsonekin, ordea, ez da hausten ergatibitatea, eta komunztadura hizkuntza ergatibo arruntetan bezala banaturik ageri zaigu:

- (33) etxera joan nintzen
- (34) zuk ikusi ninduzun
- (35) nik ikusi zintudan

Hirugarren pertsona dela eta, analisi desberdinak proposatu izan diren arren (Euskaltzaindia 1987; Ortiz de Urbina 1989), badirudi hirugarren pertsonak ez duela marka morfoloikorik uzten aditzean: *d-* izango genuke batzuetan (*da*), *l-* bestetan (*balitz*) eta *z-* ere bestetan (*zen*). Bizkaieraz - litzateke gainera (*eban*). Hori dela eta, ondoko adibideotan ikusten dugu nola hausten den ergatibitatea, hiru argumentuek marka hartzen baitute:

- (36) Jon etxera joan da
- (37) Jonek ikusi du
- (38) Jon ikusi du

Sintaxian ere, aipatu bezala, euskara ez da ergatiboa. Kontrol egituretan, esate baterako, hona zer gertatzen den:

- (39) joaten saiatu gara
- (40) agurtzen saiatu gara

Jakina, perpaus horietan dauden argumentu guztiak isilean utzi ditugu. Argumentu horiek seinatu nahi izanez gero, eta orain arteko laburdura berak erabiltzen baditugu, perpausen mugak zein diren kontuan izanez, honela aurkezten ahal ditugu adibide horiek:

- (40) [s [s joaten] saiatu gara]
- (41) [s [a p agurtzen] saiatu gara]

Ergatibitatea aztertu nahi dugunez, lehenbiziko adibideak ez digu deus berririk esaten, horko bi argumentuak «s» baitira. Bigarrena, ordea, argigarria izan daiteke. Ohart gaitzkeenez, *agurtzen saiatu gara* bezalako perpaus baten esanahia izan liteke, argumentuak isiltzen ditugunez gero, «gu saiatu gara beste norbait agurtzen» edo «gu saiatu gara beste norbaitek agur gaitzan». Euskaraz, ordea,

lehenbiziko esanahia du. Zer adierazi nahi du honek? Bada, euskara ez dela ergatiboa maila honetan, hain zuzen ere, «s» eta «a» baitoaz elkarrekin (gu saiatu eta guk agurtu) eta ez «s» eta «p» (bigarren irakurketa posible horretan joango liratekeen moduan: gu saiatu eta gu agurtu). Bigarren esanahiarekin, bai, ergatibotzat jo beharko genuke.

Datu hauek guztiak ikusi ondoren, izenburuan eginiko galderari erantzuna ematen hasten ahal gara: euskara ergatiboa litzateke izen sintagmaren eta aditzaren morfologian, nahiz ergatibotasun hau zenbaitetan hausten den. Ez da ergatiboa, ordea, sintaxi mailan, nahiz maila honetan egitura ergatiboak ere aurkitzen ditugun. Kontua, alabaina, ez da hemen bukatzen. Aurrera segitu baino lehenago bazterrean utziko ditugu, nolana ere, (42) adibidea bezalako egitura pasiboak eta (43) bezalako antipasiboak. Adibide hauetan, ikus daitekeenez, ergatibitatearen kontua beste modu batera aztertu beharko litzateke:

(42) etxea, nik egina da

(43) ni leku ederrak ikusia naiz

5. Pasibisten teoria

Itzul gaitzen berriz ere hasieran emandako adibideetara. Lehenbiziko bi horietan oinarritu gara euskara ergatiboa dela baieztatzeko, gure argumentazio osoari hasiera emanez horrela. Ohart gaitzen, dena dela, gure argumentazio honetan badela lehengai bat ontzat ematen duguna zalantzan jarri gabe: *subjetuaren* kontzeptua bera da hain zuzen ere. Hor esaten da perpaus iragangaitzen subjetuak perpaus iragankorren objetuaren marka bera daramala. Baina, behar al dugu zerbaiteko kontzeptu hori? Badirudi iragangaitzen argumentu bakarra sistematikoki iragankorren objetuarekin batera ageri baldin bazaigu, ez dugula arrazoi gehiegi iragangaitzen argumentu hori subjektuzat hartzeko. Beste zerbaitetan oinarritu beharko luketen frogak beharko genituzte halako baieztapenak egiteko. Keenan izan da argumentazio mota hau garatu duenetako bat (Keenan 1976).

Alde batera utzirik kontu hau, baina hori ere gogoan dugula, hizkuntzalariak euskara aztertzen hasi zirenean beti geratzen ziren harriturik arazo batekin: euskaraz sintaxi-funtzioak kasu-marken bidez adierazten baldin baditugu, nola da posible kasu-marka batek bi funtzio izatea (marka objetua eta subjektua izan daiteke) eta funtzio bat bakarra bi kasu-markaren bidez adieraztea (subjetuaren funtzioa absolutuarekin eta ergatiboarekin adierazten da)? Galdera hau zuten gogoan pasibismoaren teoria proposatu eta defendatu zuten hizkuntzalariak. Ez bakarrik euskararen kasuarekin. Orain dela ehun urte baino gehiago Stempf hizkuntzalariak proposatu zuen (Stempf 1890) euskara ez zela ergatiboa, baizik pasiboa. Eta teoria honekin segitu zuten Schuchardt-ek (Schuchardt 1893): Gavel-ek eta Lacombe-ek beranduago (Gavel 1930; Lacombe 1952), Errepublika garaian; Lafon-ek, Uhlenbeck-ek eta Tovar-ek gerra ondoren (Lafon 1943; Lafon 1954; Lafon 1960; Tovar 1954; Uhlenbeck 1948), e.a. Lafon-ek zioenez, «euskarologo

kompetente guztiek» onartzen omen zuten pasibitatearen teoria. Guztiek ez: Vinson, Azkue, Lafitte, Altube, Mitxelena eta beste batzuk kontra agertu baitziren (Altube 1929; Azkue 1905; Azkue 1925; Lafitte 1931; Vinson 1921), Egun ez du, guk dakigula, inork ere segitzen teoria hau.

Zertan oinarritzen da pasibismoa? Pasibisten ustez euskaraz absolutu kasuan ageri diren sintagmak beti subjektuz hartu behar ditugu. Hori dela eta, (1) eta (2) adibideetan *Peru* beti subjektua da. Zer izango litzateke orduan ergatiboa? Gaztelera edo frantsesa bezalako hizkuntzetan ageri den agente pazientea. Bestela esanda, guk subjektuz hartzen dugun ergatiboa posposizio sintagma bat izango litzateke *menditik*, *herrira* edo *Jonekin* sintagmen parekoa alegia. Ez gara luzatuko puntu honetan, Sarasola eta Trask mintzatu baitira gai honetaz (Sarasola 1977; Trask 1982), eztabaida honen argumentazioak oso ongi biltzen direlarik bi lan horietan. Hemen aipatzea bederen egokia ikusi dugu, datu berberak molde batean eta bestean esplikatu baitaitezke.

6. Aditz iragangaitzen sailkapena

6.1. Ordua da, hala ere, euskal aditzera hurbiltzeko berriz ere. Orain arte, adibideetan ikus daitekeenez, aditzen sailkapen nagusi hau proposatu dugu:

(44) Mikelek Jon aurkitu du

(45) Jon etorri da

Lehenbiziko aditza iragankorra izango litzateke. Bigarrena, ostera, iragangaitza. Eta hala dira irizpidetzat laguntzailearen kontua nahiz argumentuen kontua hartzen dugun. Baina zer egin, ordea, beste aditz hauekin?

(46) Jonek goiz *bazkaldu* du

(47) Mirenek zurekin *afalduko* du

(48) mutil horrek ongi *jolasten* du

(49) hemen berean *segituko* dugu zuek itzuli arte

(50) oso ongi *pasatu* dugu

(51) auto horrek *distirutzen* du

(52) urak oraintxe *irakin* du

(53) Mikelek *deitu* du gaur goizean

(54) hara joateak ez du *merezi*

(55) gaur gauean ez du batere *deskantsatu*

Hemen jarri ditugun aditz hauek sailkatzeko orduan arazo bat aurkitzen dugu, orain arte pare-parean izan ditugun bi irizpideak gurutzatu egiten baitzaizkigu: euskaraz iragankortzat jotzen ditugu (laguntzaleagatik) baina argumentuen irizpidea erabiliz gero, aditz hauek iragangaitzak lirateke, argumentu bat bakarra hartzen dutelako (gaur egungo hiztunei zertxobait harrigarri suerta balekieke ere, *bazkaldu* eta *afaldu* beti iragangaitzak izan dira euskal idazleen tradi-

zioan. Aski da horretako *Orotariko Euskal Hiztegian* datozen adibideak ikustea). Aditz hauen parekoak, gainera, beste hizkuntzetan iragangaitzen multzoan sailkatzen dira:

(56) Mikelek deitu du gaur goizean

(57) Miguel ha telefonado esta mañana

Ohartuko gara, erdaratik mailegatzen ditugun aditz iragangaitzak euskaraz iragankor bihurtzen ditugula maiz: *dimititu*, *funtzionatu*, e.a. Zer esan nahi du honek? Seguraski ere, euskaraz iragankortzat hartzen ditugun hainbat aditz (argumentu bat bakarra hartzen duten guztiak agian) iragangaitzen artean sailkatu behar ditugula, beste hizkuntzetan bezala. Orduan, zergatik hartzen dute argumentu bateko aditz batzuek **edun* edo **ezan* laguntzaile moduan eta beste batzuek, berriz, *izan* edo **edin*, denak iragangaitzak baldin badira? Hori ere esplikatu behar den beste kontua da. Berehala itzuliko gara puntu honetara.

6.2. Batez ere Perlmutter-en lanak argitaratu ziren arte (Perlmutter 1978), ondoko adibide hauek multzo beraren barnean sailkatzen ziren, denak intrantsitibotzat hartuz:

(58) Juan ha venido

(59) Juan ha comido

(60) Juan pasará a las diez

(61) Juan ha telefonado

(62) Juan duerme

(63) Juan ha enfermado

(64) Juan ha muerto

(65) Juan ha murmurado

(66) Juan ha sonreído

Baina bera ohartu zen, hain zuzen, aditz horien artean desberdintasun handiak zeudela bai esanahiaren aldetik, bai distribuzio sintaktikoagatik. Badirudi aditz iragangaitzen artean bi sail bereiz daitezkeela: denek argumentu bakarra hartzen duten arren, argumentu hori agentea da aditz batzuetan eta pazientea, berriz, beste aditz batzuetan.

Argumentu agentea dute komunikazio aditzek (*hablar*, *murmurar*, *telefonar*, *llamar*, e.a.); animalien soinu aditzak adierazteko erabiltzen ditugunek (*ladrar*, *mugir*, *rebuznar*, *cacarear*, e.a.); gorputzaren prozesu fisiologikoak adierazten dituzten aditzek (*mear*, *toser*, *reír*, *sudar*, *llorar*, *sonreir*, e.a.); ariketa aditzek (*bailar*, *cantar*, *jugar*, *correr*, e.a.) eta zeinuak adierazteko erabiltzen ditugun aditzek (*reír*, *gesticular*, e.a.), besteak beste.

Aldiz, argumentu pazientea erakusten dute, oro har, egoera aldaketa adierazten dutenek (*romper*, *morir*, *floreecer*, *encoger*, *marchitar*, e.a.); gertaera aditzek

(*suced*, *acontecer*, *acaecer*, *ocurrir*, e.a.); posizio aldaketa adierazten dutenek (*ir*, *venir*, *subir*, *bajar*, e.a.) eta agertze-desagertze aditzek (*aparecer*, *aclarar*, e.a.).

Hau, jakina, argumentu bakarreko aditzekin beti ere: *romper* aditzak, esaterako, bi argumentu hartzen baditu (*Juan ha roto un jarrón*) aditz iragankor arrunta izango genuke, argumentu agenteduna eta argumentu pazienteduna, baina argumentu bat bakarra hartzen duenean (*el jarrón se ha roto*) argumentu pazientedun aditz iragangaitza.

Hizkuntzalariek bere egin dute sailkapen hau (Burzio 1986a; Burzio 1986b; Levin 1983; Levin 1987; Levin and Rappaport 1985; Marantz 1981; Perlmutter 1978; Rosen 1981) eta gaur egun, oro har, aditz ez-akusatiboak dira argumentu pazientea hartzen duten aditz iragangaitzak eta aditz ez-ergatiboak, berriz, argumentu agentea hartzen duten aditz iragangaitzak. Beste hitzetan esanez: aditz ez-ergatiboen subjektua benetakoa subjektua da baina aditz ez-akusatiboen subjektua berez objektua da, subjektu bihurtu dena.

Bereizketa hau egiteko arrazoia ez da bakarrik semantikoa. Jo dezagun sailkapen honek ere balio duela euskaraz. Orduan, *deitu* bezalako aditz bat (ahaztuko dugu laguntzailearen kontua) iragangaitza izango litzateke, ez-ergatiboa, eta *etorri*, ostera, iragangaitza eta ez-akusatiboa. Zer gertatzen da aditz hauen sintaxiarekin? Badirudi hizkuntzetan zehar aurki daitezkeela zenbait arrazoi proposaturiko sailkapen hau oinarritzen dutenak.

Esate baterako, euskaraz partitiboa argumentu pazienteetan bakarrik agertzen da, ez argumentu agenteekin (ez da, hortaz, aditz ez-ergatiboekin agertuko):

- (67) ez dut *haurra* ikusi ez dut *haurrik* ikusi
 (68) ez da *haurra* etorri ez da *haurrik* etorri
 (69) ez du *haurrak* deitu *ez du *haurrik* deitu

Aditz hauek ondoko beste distribuzio berezi hau ere erakusten dute euskaraz¹. Gorago aipatu dugun moduan, egitura pasiboak ere baditugu euskaraz, oinarrian iragankorrak diren perpausetatik sortzen direnak:

- (70) nik etxea egin dut
 (71) etxea, nik egina da

Hala ere, guk «iragankor» deitzen ditugun aditz askok ez dute onartzen halako aldaketarik:

- (72) *nik afaldua da
 (73) *nik lo egina da
 (74) *lo(a), nik egina da
 (74) *hitz(a), nik egina da

¹ Ohar hau J.A. Mujika adiskideari eskertu nahi diot.

Arrazoa, seguraski ere, azaltzen ari garen kontu honetan bilatu behar da: aditz horiek ez dira iragankorrak, baizik iragangaitzak. Paper tematiko bakarra ezartzen dute, eta hori agentearena da.

Italieraz badugu *ne* partitibo bat, klitiko bezala erabilia. Izena isiltzen dugunean eta izen hori zenbatzaile batek determinatzen baldin badu, aurrean jarri behar dugu *ne* delako hori (gaztelaniazko *me has dado un libro* eta *me lo has dado* bikotearekin gertatzen denaren antzeko zerbait litzateke):

(75) sí, ho mangiato molte mele

(76) sí, ne ho mangiato molte

Ikus dezagun orain klitiko honen distribuzioa paradigma honetan:

(77) Giovanni arriba

(78) Giovanni telefona

(79) Ne arrivano molti

(80) *Ne telefonano molti

Ikusten denez, klitikoa ez-akusatiboekin bakarrik ageri da, ez agentedun aditzekin. Honen antzeko zerbait dugu *avere* eta *essere* aditz laguntzaileekin gertatzen dena ere (euskaraz bezala orain).

(18) Giovanni *é* arrivato

(82) Giovanni *ha* telefonato

Kontua da, nonbait, *ne* klitikoa bezala, *essere* laguntzailea, aditza eta pazientearen arteko erlazioak (eta ez aditza eta agentearen artekoak) bakarrik adierazteko erabiltzen dela (Demonte 1990).

Ongi dakigunez, gaztelaniaz, subjektua isil daiteke:

(83) viene

Isiltzen dugun subjektua hirugarren pertsona pluralekoa denean, interpretazio zuzena edo arbitrarioa izan dezake:

(84) Juan y María han ido al monte pero no encuentran al niño

(85) todavía no encuentran el avión desaparecido

Lehenbiziko adibidean «encuentran» horren subjektua «Juan y María» da. Bigarrean, nolakoa den testuingurua, subjektu hori identifikatzeko modua izan daiteke, baina esaldi hori egunkariko erreportaia baten izenburua baldin bada, orduan identifikazio arbitrarioa du, ez baitakigu nor den subjektua. Edozein izan daiteke. Kontua da, ordea, interpretazio arbitrario hori benetako subjektuekin bakarrik suertatzen dela (agentedun aditzekin alegia, aditz ez-ergatiboekin):

(86) aquí pro (arb) venden ropa

(87) *aquí pro (arb) llegan tarde

(88)*aquí pro (arb) vuelven a las 9

Honen antzeko serbait gertatzen da *se* inbertsonalarekin eta egitura kausati-boetan (ikus Demontek ematen dituen adibideak puntu hau eztabaidagarriago suertatzen baita).

Aipa dezagun, azkenik, benetako subjektuak (hau da, aditz iragangaitz ez-ergatiboen argumentuak) ezin direla jarri aditzaren ondotik determinatzailerik gabe:

- (89) han leído libros
- (90) han pasado camiones
- (91) *han dormido animales
- (92) *han cantado hombres
- (93) han venido hombres
- (94) *han vendido dependientes

Adibide hauek guztiak ematen dizkiguten argumentuak bi eratakoak dira: batzuek erakusten dute aditz iragankorren objektua eta aditz ez-akusatiboen subjektua sail berean sar daitezkeela zenbaitetan. Beste adibide batzuek, berriz, erakusten digute benetako subjektuek, hau da, aditz iragankorren subjektuak eta aditz ez-ergati-boetan dugun argumentu bakarrak, badituztela elkarren artean zenbait ezaugarri, aditz ez-akusatiboetako argumentuak ez dituenak. Beraz, badi-rudi badi-rela arrazoi garbiak (semantikoak eta sintaktikoak) aditz iragangaitzen artean egin ditugun bi sailak bereizteko: aditz ez-akusatiboak eta aditz ez-ergati-boak. Esan dezagun, bide batez, *autoa sartu dut*, *autoa ibili dut*, *edo autoa joan dut* bezalako esaldietan *autoa* izen sintagmaren papera pazientearena baldin bada, ez dagoela arrazoirik pentsatzeko *autoa sartu da*, *autoa ibili da* eta *autoa joan da* bezalako esaldietan bestelako paper tematikoa duenik. Hau izango litzateke per-paus ez-akusatiboen argumentua eta per-paus iragankorren objetua elkartzeko beste arrazoi bat.

7. Ondorioak

7.1. Orain itzultzen ahal gara goraxeago egin dugun galderara. Proposatzen dugun sailkapen hau zuzena baldin bada, zergatik gertatzen da aditz iragangaitz batzuek **edun* hartzen dutela laguntzailetzat euskaraz eta beste batzuek, berriz, *izan*? Levin-ek dioenez (Levin 1983), euskaraz iragangaitz deitzen ditugun aditzak iragangaitzen arteko sail batekoak bakarrik baitira, pazientedun aditzak. Gure aditz iragangaitzak, horrenbestez, aditz ez-akusatiboak dira. Aditz ez-ergati-boak, berriz, hau da, agenteduna aditzak *nor* kasua erabiliz ematen ditugu (sal-buespenbak ere badira hemen: *mintzatu*, esaterako, ez-ergati-boa da, agenteduna, baina *izan* eskatzen du).

Adibideetan ikusi dugun moduan, aditz ez-ergati-boak dira agentearen argu-mentu bakarra hartzen duten aditzak: *deitu*, *bazkaldu*, *afaldu*, *jolastu*, *segitu*, *dantzatu*, *deskantsatu*, *irakin*, *kantatu*, *kurritu*, *atertu*, *dudatu*, *iraun*, *distiratu*,

e.a., bezalakoak aipatu ditugu. Hauekin batera aipatu beharko genituzke *hasi, ari, izan, ekin*, e.a., nahiz eta hauek absolutuan ez doazen argumentuak eskatzen dituzten. Kontura gaitezen beste hizkuntzetako hainbat eta hainbat aditz ez-ergatibo euskaraz bi argumenturekin ematen ditugula, *egin* aditzaz baliatuz: *hitz egin, dei egin, marmar egin, zaunka egin, orro egin, negar egin, irri egin, eztul egin, pis egin, alde egin*, e.a. Baina hori itxura kontua da. Aditzaren ondoan ageri den argumentu hori benetan aditzaren zatitza har daiteke, izen sintagma autonomatzat baino egokiago (esan dezagun, bide batez sintagma horrek ematen diola aditzari esanahia eta, Sarasolak aipatzen dituen salbuespenak kendurik, aditzaren thematzat hartu behar dela). Sarritan sintagma horrek ez du partitiboaren marka hartzen ahal (**ez du alderik egin*); beste batzuetan nekez onartuko du izenlagunik (**hitz polita egin du*); beste zenbaitetan esanahia aldatzen da (*ez du lan egin ez du lanik egin*); ezin daiteke mintzagaiaren tokian jarri (**negar, ez du mutil horrek egin*); zenbaitetan oso nekez aurkitzen dugu hor benetako izen sintagma (*eguzkiak ñir-ñir egiten du*); badirudi askotan galdegaiaren tokian dagoela eta ezin dela beste osagairik sartu hor galdegaitzat (**Andonik egin du dei*), e.a. Horregatik diogu osagai hori aditzaren zati bat dela, hizkuntzetan zehar oso arrunta den (Baker 1987) inkorporazio prozesu baten bidez aditzak eskuratu duena.

Euskara, Levinen hipotesia zuzena baldin bada, oso hizkuntza argigarria izango litzateke orduan: gaztelania, ingelesa, frantsesa edo italiara aztertzeke orduan halako froga sintaktiko berezi batzuk behar ditugu aditz ez-ergatiboak eta aditz ez-akusatiboak bereizteko, ikusi dugun moduan. Euskaraz, ordea, morfologia bera gardena litzateke. Salbuespenak salbuespen, bi argumentuko aditzak iragankorrak izango genituzke, beste hizkuntzetan bezala. Baina argumentu bakarreko aditzak ez-ergatiboak izango genituzke, hau da, agentedun aditzak, duten argumentu bakarra *nor*k kasuan agertzen bada (kontuz hemen terminologia nahasiarekin: hain zuzen ere ez-ergatibo deitzen ari gara ergatibo kasua eskatzen dutenak) eta ez-akusatiboak, berriz, argumentu hori *nor* kasuan agertzen bada. Ikus ditzagun honek izan ditzakeen ondorioak.

7.2. Berriz ere egin dezakegu orain hasiera-hasierako galdera: euskara, hizkuntza ergatiboa ote da? Lan honekin hastean eman dugun arrazoibidea honela oinarritu dugu: aditz iragangaitzen argumentuak aditz iragankorren objektuaren kasu marka hartzen badu, hizkuntza ergatibotzat hartzen da. Eta gure (1) eta (2) adibideek, berriz hemen ematen ditugunak, euskara ergatiboa dela frogatzen zuten:

(95) *Peru* etorri da

(96) Mikelek *Peru* agurtu du

Hauxe da, esaterako, tongan hizkuntzarekin gertatzen dena:

(97) Na'e tamate'i Tevita'a Kolaiate (Dabidek Goliat hil zuen)

(98) Na'e lea'a Tolu (Tolu mintzatu zen)

Tongan-ez hau sistematikoa denez gero, tongan hizkuntza ergatiboa dela esaten dugu: hizkuntza honetan kasu-marka izen sintagmaren aurretik jartzen da:

'a dugu absolutuaren marka ('a *Kolaiate; Tolu*) eta 'e, berriz, ergatiboarena ('e *Tevita*). Baina orain euskararekin erkatzen baldin badugu, datu gehiago hartu behar dugu kontuan. Esate baterako, (93) beste honela ere itzul daiteke:

(99) Toluk hitz egin zuen

Eta hori gertatuko zaigu aldiero aditz ez-ergatiboekin. Baina orduan ez da egia euskal aditz iragangaitzen argumentuak aditz iragankorren objektuaren kasu marka bera hartzen duela. Batzuetan hartzen baitu. Baina besteetan ez.

Honek guztiak zalantzan jartzen du euskal ergatibitatea. Esan liteke euskarren zati handiak bakarrik direla ergatiboak, baina oro har ez dela ergatiboa. Ergatiboa da aditz iragangaitz ez-akusatibodun perpausen izen sintagmaren morfologian eta aditzaren komuntzaduran, hemen ere ergatibitatea hausten ez den bitartean (oroitu 3. pertsonaz eta tempusaz esan duguna). Sintaxi mailan oro har nominatibo-akusatiboa da.

Euskararen kasua, egia esan, ez da hain sinplea, aukera hauek guztiak baititugu:

1. Aditz iragankorak: *Mikelek Jon agurtu du*
2. Aditz ez-akusatiboak: *Mikel etorri da*
3. Aditz ez-ergatiboak: *Mikelek deitu du*
4. Aditz iragankorak, baina argumentuetako bat sasi-argumentutzat hartu behar dena: *eguna luzatu du*
5. **edun* aditza eskaturik ere, aditz iragangaitzak (zein motatakoak?): *joate-ak merezi du* nahiz *joatea merezi du*
6. Eguraldi aditzak (argumentu gabeak): *ilundu du*

Hauetaz gain ditugu zeharkako argumentuak eskatzen dituztenak. Ez dago argi non sailkatu hauek:

7. *Izan* aditza hartu baina bi argumentu behar dutenak: *lanean hasi da; lan egiten hasi da; lanean ari da*
8. Objetu zuzenik onartzen ez dutenak: *lanari ekin dio*

Hala ere, euskara ez bada nominatibo-akusatiboa (sintaxian bai, esan bezala) eta ez bada ergatibo-absolutua, bestelako sailkapenen bat proposa genezake euskara bezalako hizkuntzak besarkatuko lituzkeena? Agian aktibo-ezaktiboan artean sartu beharko litzateke. Hizkuntza hauek ez dira ergatibo-absolutuak bezain arruntak baina hainbat hizkuntzalarik proposatu izan dute bereizketa hau hizkuntza batzuen kasuan: besteak beste, dakota hizkuntzan, hidatsa hizkuntzan eta georgieraz ere (Chafe 1970; Harris 1981; Harris 1982; Heath 1980; Matthews 1965; Sapir 1917). Levinek ere aukera hau aipatzen du aztertzeke utziz, nonbait, anaforen distribuzioak ere arazoak planteatuko lituzkeelako. Gu ere hemen gertatuko gara, gure helburua ez baita izan euskara sailkatzea, baizik euskara ergatibotzat har daitekeen ala ez erabakitzea. Eta horretaz eman dugu iritzia.

BIBLIOGRAFIA

- AISSÉN, J.L. (1987). *Tzotzil Clause Structure*. Dordrecht, Reidel Publishing Company.
- AKMAJIAN, A., R. DEMERS AND R. HARNISSE. (1979). *Linguistics: An Introduction to Language and Communication*. Cambridge (MA), The MIT Press.
- ALTUBE, S. (1929). *Erderismos*. Bermeo, Gaubeka-ren Ibarbola.
- AZKUE, R. M. (1905). *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbao, Euskaltzaindia (berargitalpena).
- AZKUE, R. M. (1925). *Morfología Vasca*. Bilbao, Editorial Vasca.
- BAKER, M. (1987). *Incorporation. A Theory of Grammatical Function Chang-ing*. Chicago, The Chicago University Press.
- BURZIO, L. (1986a). *Intransitivity Verbs and Italian Auxiliaries*. Cambridge. MIT (argitara gabeko tesia).
- BURZIO, L. (1986b). *Italian Syntax. A Government and Binding Approach*. Studies in Generative Grammar. Dordrecht, Reidel.
- CHAFE, W. (1970). *A Semantically Based Sketch of Onondaga*. Baltimora, Waverly Press, Inc.
- COMRIE, B. (1978). «Ergativity». *Syntactic Typology*. Sussex, The Harvester Press.
- COMRIE, B. (1981). *Language Universals and Linguistic Typology*. Oxford, Basil Blackwell.
- DEMONTE, V. (1990). Transitividad, intransitividad y papeles temáticos. *Estudios de lingüística de España y México*. México, UNAM-El Colegio de México.
- EUSKALTZAINDIA. (1987). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Bilbo, Euskaltzaindia.
- GAVEL, H. (1930). «Observations sur la passivité Basque». *RIEV*. XXI: 1-14.
- HARRIS, A. (1981). *Georgian Syntax: A Study in Relational Grammar*. Cambridge. Cambridge University Press.
- HARRIS, A. (1982). «Georgian and the Unaccusative Hypothesis». *Language*. 58(2): 290-306.
- HEATH, J. (1980): «Whither ergativity?: A Review Article» *Linguistics*. 18(5): 877-910.
- KEENAN, E. L. (1976). «Towards a Universal Definition of Subject». *Subject and Topic*. N. York, Academic Press.
- LACOMBE, G. (1952). «Langue basque». *Las Langues du Monde*. París, CNRS.
- LAFITTE, P. (1931). «Pour ou contre la passivité du verbe basque». *Gure Herria*. (XI): 263-271.
- LAFON, R. (1943). *Le Système du verbe basque au xviiè siècle*. Bordeaux, Université de Bordeaux.
- LAFON, R. (1954). «Comportement syntactique, structure et diathèse du verbe basque». *BSLP*. 50(1).
- LAFON, R. (1960). «L'expression de l'auteur de l'action en basque». *BSLP*. 55(1): 186-221.
- LEHMANN, W. P. (1978). *Syntactic Typology*. Harvester Studies in Cognitive Science. 463.
- LEVIN, B. (1983). *On the Nature of Ergativity*. Cambridge, MIT (argitaragabeko tesia).
- LEVIN, B. (1987). «The Basque Verbal Inventory and Configurationality». *Configurationality*. Dordrecht. Foris.

- LEVIN, B. AND M. RAPPAPORT. (1985). «The formation of Adjectival Passives». *Lexicon Project Working Papers*. Cambridge, MA, MIT.
- MARANTZ, A. P. (1981). *On the Nature of Grammatical Relations*. Cambridge, MIT (Argitara gabeko tesia?).
- MATTHEWS, G. H. (1965). *Hidatsa Syntax*. The Hague, Mouton.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1989). *Parameters in the Grammar of Basque. Studies in Generative Grammar*. Dordrecht, Foris.
- OYARÇABAL, B. (1990). «Structural and Inherent Case-Marking: Ergacusativity in Basque» (eskuidazkia).
- PERLMUTTER, D. M. (1978). *Impersonal Passives and the Unaccusative Hypothesis. Proceedings of the Berkeley Linguistic Society, 4*. Berkeley (California), Berkeley Linguistic Society.
- PLANK, F. (1979). *Ergativity*. 569.
- ROSEN, C. (1981). «The Interface between Semantic Roles and Initial Grammatical Relations». *Studies in Relational Grammar 2*. Chicago, University of Chicago Press.
- ROTAETXE, K. (1978). «Lingüística lógica: la construcción ergativa vasca». *REL*. 8: 431-445.
- ROTAETXE, K. (1980). «Ergatiboaren sujetotasunaz». *Euskera*. XXV: 417-424.
- SAPIR, E. (1917). «Review of Uhlenbeck (1916) [Het Passieve Karakter van het Verbum Transitivum of van het Verbum Actionis in Talen van Noord-Amerika]». *IJAL*. 1: 82-86.
- SARASOLA, I. (1977). «Sobre la bipartición inicial en constituyentes inmediatos». *ASJU*. XI.
- SCHUCHARDT, H. (1893). «Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco» *Boletín de la RSVAP*. XXVIII.
- STEMPF, V. (1890). *La langue basque, possède-t-ell, oui ou non, un verbe transitif*. Bordeaux.
- TOVAR, A. (1954). *La lengua vasca*. San Sebastian, Biblioteca Vascongada de Amigos del País.
- TRASK, R. (1982). *Synchronic and Diachronic Studies in the Grammar of Basque*. The School of Oriental and African Studies (University of London), Doktorego tesia. Argitaratu gabea.
- UHLENBECK, C.C. (1947): «La langue basque et la linguistique general». *Lingua*. 1: 59-76.
- VINSON, J. (1921). *La langue Basque. Son état actuel. Son evolution. Son histoire*. Bayonne.